**Bigarrena.**- Era berean, indargabetu egingo dira Zerga Premiatasuneko Araugintzako Dekretu honetan ezarritakoaren aurka doazen maila bereko edo txikiagoko xedapenak oro.

AZKEN XEDAPENAK

**Lehenbizikoa.- Indarrean sartzea.**

Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALean argitaratzen den egunean sartuko da indarrean Zerga Premiatasuneko Araugintzako Dekretu hau, eta bere artikuluetan adierazten diren egunetan hasiko da ondorioak izaten.

**Bigarrena.- Garatzeko ahalmena.**

Baimena ematen zaio Arabako Foru Aldundiari Zerga Premiatasuneko Araugintzako Dekretu hau garatu eta aplikatzeko behar adina xedapen eman ditzan.

**Hirugarrena**.- Zerga Premiatasuneko Araugintzako Dekretu hau Arabako Biltzar Nagusien esku utziko da, baliozkotu edo baliogabetu dezan, indarrean den araudian ezarritakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2001eko otsailaren 12a.– Diputatu Nagusia, RAMÓN RABANERA RIVACOBA.– Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaeko Foru Diputatua, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

*Diputatuen Kontseiluaren Erabakiak*

**860**

**39/2001 ERABAKIA, otsailaren 6ko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, Eskuernagako udalerrirako egin zen Ondasun Higiezinen Zergaren peko hiri lurzoruaren mugaketa zati batean aldatzea onartzen da.**

821/2000 zenbakiko Foru Aginduak, azaroaren 30ekoak, behinbehinekoz onartu zuen Eskuernagako udalerrirako egin zen Ondasun Higiezinen Zergaren peko hiri lurzoruaren mugaketa zati batean aldatzea.

Foru Arauaren xedapen-zatiko 4. artikuluak Eskuernagako Udalari horren berri emateko agintzen zuen, eta hala egin zen: 2000ko abenduaren 1ean bidali zitzaion jakinarazpena Udalari, eta horrek 2000ko abenduaren 12an jaso zuen.

Ondasun Higiezinen gaineko Zerga arautzen duen uztailaren 19ko 42/89 Foru Arauak 11. artikuluaren 4. paragrafoan xedatzen duenez, dagokion Udalari entzuteko aldi bat, hamabost egunekoa, eman behar zaio, bidezko deritzona adieraz dezan.

Jakinarazpena eginez gero hamabost egun igarota, Foru Agindu horretako 5. artikuluak xedatzen duen moduan, Eskuernagako Udalak ez du ebazpen horren aurka ezer adierazi.

Horrela bada, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta, Diputatuen Kontseiluak gaur egindako bilkuran aztertu ondoren, hau

XEDATU DUT:

LEHEN ARTIKULUA.- Eskuernagako udalerrirako egin zen Ondasun Higiezinen Zergaren peko hiri lurzoruaren mugaketa zati batean aldatzea onartzea, aipatu udalerriko Planeamenduko Arau Subsidiarioen aldaketa puntualarekin bat etorriz; horren arabera, lurzoru urbanizaezineko 7.470 $m^2$ bizitegieterako hiri lurzorutzat sailkatu da, martxoaren 31ko 174/1999 Foru Aginduan onartu zen bezala.

BIGARREN ARTIKULUA.- Hala ere, Ondasun Higiezinen gaineko Zerga arautzen duen uztailaren 19ko 42/89 Foru Arauak 2. artikuluko b) idatz-zatiko 1, 2 eta 3. puntuetan ezarritakoa kontuan hartu beharko da hiri izaerako eraikinek hartzen dituzten eta biztanleguneetatik kanpo dauden lurzoruei dagokienez.

HIRUGARREN ARTIKULUA.- Erabaki hau Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALean eta Lurralde Historikoan gehien saltzen diren egunkarietan argitaratuko da. Gainera, 15 eguneko epean jendaurrean jarriko da, Eskuernagako Udaleko bulegoetan, interesdunek egoki iritzitako erreklamazioak aurkez ditzaten, horrela xedatzen baitute Ondasun Higiezinen gaineko Zerga arautzen duen uztailaren 19ko 42/89 Foru Arauak 11. artikuluaren 5. paragrafoan eta hori garatzeko arautegia eman zuen abenduaren 15eko Diputatuen

**Dos.**- Asimismo quedarán derogadas cuantas disposiciones de igual e inferior rango se oponga a lo establecido en el presente Decreto Normativo de Urgencia Fiscal.

DISPOSICIONES FINALES

**Primera.- Entrada en vigor.**

El presente Decreto Normativo de Urgencia Fiscal entrará en vigor el mismo día de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Alava y empezará a surtir efectos en las fechas que se indican en su articulado.

**Segunda.- Facultad de desarrollo.**

Se autoriza a la Diputación Foral de Álava para dictar cuantas disposiciones sean necesarias para el desarrollo y aplicación de este Decreto Normativo de Urgencia Fiscal.

**Tercera.**- Este Decreto Normativo de Urgencia Fiscal se someterá a las Juntas Generales de Álava, para su convalidación o revocación, de conformidad con lo establecido en la normativa vigente.

Vitoria-Gasteiz, a 12 de febrero de 2001.– El Diputado General, RAMÓN RABANERA RIVACOBA.– El Diputado Foral de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

*Acuerdos del Consejo de Diputados*

**860**

**ACUERDO 39/2001, del Consejo de Diputados de 6 de febrero, que aprueba la modificación parcial de la Delimitación de Suelo urbano sujeto al Impuesto sobre Bienes Inmuebles realizada para el término municipal de Villabuena.**

Por Orden Foral número 821/2000, de 30 de noviembre, se aprobó con carácter provisional, la modificación parcial de la Delimitación de Suelo urbano sujeto al Impuesto sobre Bienes Inmuebles, realizada para el término municipal de Villabuena.

En el artículo 4º de la parte dispositiva de la referida normativa legal, se ordenaba su comunicación al Ayuntamiento de Villabuena, disposición que se realizó con fecha 1 de diciembre de 2000, siendo recepcionada por el Ayuntamiento de Villabuena con fecha 12 de diciembre de 2000.

La Norma Foral 42/89, de 19 de julio, reguladora del Impuesto sobre Bienes Inmuebles, dispone en su artículo 11 apartado 4º, el plazo de audiencia al Ayuntamiento respectivo, cifrándolo en quince días, para que informe lo que estime oportuno.

Habiendo transcurrido el plazo de quince días desde la notificación, tal y como se especifica en el artículo 5º de la referenciada Orden Foral, el Ayuntamiento de Villabuena no ha manifestado disconformidad alguna con la resolución adoptada.

En su virtud, a propuesta del Diputado Foral titular del Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, previa deliberación del Consejo de Diputados, en sesión celebrada por el mismo, en el día de hoy,

ACUERDO:

ARTICULO PRIMERO.- Aprobar la modificación parcial de la Delimitación de Suelo urbano sujeto al Impuesto sobre Bienes Inmuebles, realizada para el término municipal de Villabuena, de conformidad con lo establecido en la modificación puntual de las Normas Subsidiarias de Planeamiento del referenciado término municipal, consistente en la clasificación como suelo urbano residencial de 7.470 $m^2$. de suelo no urbanizable, aprobada por Orden Foral número 174/1999, de 31 de marzo.

ARTICULO SEGUNDO.- No obstante lo anterior, hay que tener en cuenta lo establecido por el artículo 2º apartado b) puntos 1, 2 y 3 de la Norma Foral 42/89 de 19 de julio del Impuesto sobre Bienes Inmuebles, para el tratamiento de los suelos ocupados por construcciones de naturaleza urbana, situados fuera de los núcleos de población.

ARTICULO TERCERO.- El presente Acuerdo será publicado en el BOLETIN OFICIAL del Territorio Histórico de Alava y en los diarios de mayor circulación del Territorio Histórico. Además se procederá a su exposición pública por un plazo de 15 días para que los interesados formulen las reclamaciones oportunas. La exposición pública se llevará a cabo en las Oficinas del Ayuntamiento de Villabuena, tal y como establecen el artículo 11 apartado 5º de la Norma Foral 42/89, de 19 de julio, reguladora del Impuesto sobre Bienes Inmuebles

Kontseiluaren 1080/1992 zenbakiko Foru Dekretuak 7, 8 eta 9. artikuluetan.

Vitoria-Gasteiz, 2001eko otsailaren 6a.– Diputatu Nagusia, RAMÓN RABANERA RIVACOBA.– Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

*Foru Arauak*

## NEKAZARITZA ETA INGURUMEN SAILA

**911**

**27 zenbakiko FORU AGINDUA, 2001eko otsailaren 7koa. Honen bidez, 2001. urtean Arabako Lurralde Historikoan ibaietako arrantzaren aprobetxamendua arautzen duen araudia garatzen da.**

Arrantza-aprobetxamendua duten espezieak harrapatzeko aldiak zehaztu behar dira, 2001eko denboraldian zehar haien populazioak babestu eta hobetzeko, eta Arabako Lurralde Historikoan behar bezain babesturik ez dauden edo urriak diren gainerako espezieen arrantza debekatu, xedapen hauetan ezarritakoa betetzeko: arrantza-aberastasunaren sustapena, artapena eta erazko aprobetxamendua arautzen dituen Ibaietako Arrantzari buruzko 1942ko otsailaren 20ko Legea; 1948ko maiatzaren 4ko, 1949ko uztailaren 16ko eta maiatzaren 31ko Legeek sartutako aldaketak; 1943ko apirilaren 6ko Dekretuaz onartutako Arautegia, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Babesten duen 16/94 Legea.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzaren 34/85 zenbakiko Dekretuak eta Arabako Foru Aldundiaren 884/1985 zenbakiko Dekretuak (biak martxoaren 5ekoak) transferentziak gauzatu ondoren, azken horri dagokio gai hau araubidez garatzea.

Horren ondorioz, 2000ko abenduaren 12an bildu zen Lurraldeko Arrantza Kontseilua entzun ondoren, arauzko txostenak ikusirik eta dagozkidan ahalmenez baliatuz, hau

XEDATU DUT:

Arabako Lurralde Historikoan 2001. urtean arrantza-aprobetxamendua antolatuko duen arautegia garatzea.

1. ARTIKULUA. ESPEZIE ATZEMANGARRIAK:

Espezie atzemangarriak hauek izango dira:

a.- Arrainak:

Amuarrain arrunta (Salmo trutta m. fario)

Amuarrain ortzadarra (Oncorhynchus mykiss)

Perka amerikarra (Micropterus salmoides)

Aingira (Anguilla anguilla)

Barboa (Barbus graellsi

Karpa (Cyprinus carpio)

Urre-arraina (Carassius auratus)

Loina (Chondrostoma toxostoma)

Tenka (Tinca tinca)

Lutxoa (Esox lucius)

Ezkailua (Phoxinus phoxinus)

Errutilo hegatsgorria (Rutilus arcasii)

b.- Krustazeoak:

Pazifikoko karramarroa (Pacifastacus leniusculus)

Karramarro gorria (Procambarus clarkii).

2. ARTIKULUA. Arrantza egiteko aldiak, egunak eta orduak:

2.1.- Arrantza egiteko aldiak:

Aurtengo denboraldian ur kontinentaletan salmonidoak harrapatzeko aldia, bai ur libreetan, baita erregimen bereziko uretan ere, martxoaren 18tik uztailaren 31ra bitartekoa izango da, biak barne, ondorengo salbuespenekin:

a) Albina, Maroño, Ullibarri-Ganboa eta Urrunagako urtegietan eta Sobrongo urtegiko Arabako urbazterrean ,arrantza egiteko aldia martxoaren 18tik irailaren 30era bitartekoa izango da, biak barne.

y su posterior desarrollo reglamentario Decreto Foral número 1080/1992, del Consejo de Diputados de 15 de diciembre, en los artículos 7, 8 y 9.

Vitoria-Gasteiz, a 6 de febrero de 2001.– El Diputado General, RAMON RABANERA RIVACOBA.– El Diputado Foral titular del Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, JUAN ANTONIO ZARATE PEREZ DE ARRILUCEA.

*Ordenes Forales*

## DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA Y MEDIO AMBIENTE

**911**

**ORDEN FORAL número 27 de fecha 7 de febrero de 2001, por la que se desarrolla la normativa que regulará el aprovechamiento de la pesca continental en el Territorio Histórico de Alava durante el año 2001**

En cumplimiento de lo dispuesto en la Ley de Pesca Fluvial de 20 de febrero de 1942, por la que se regula el fomento, conservación y ordenado aprovechamiento de la riqueza piscícola, y las modificaciones introducidas por las leyes de 4 de mayo de 1948, 16 de julio de 1949 y de 31 de mayo de 1966, y el Reglamento aprobado por Decreto de 6 de abril de 1943, así como por lo dispuesto en la Ley 16/94 de Conservación de la Naturaleza del País Vasco, se hace necesario determinar los períodos hábiles de pesca de las distintas especies con aprovechamiento piscícola, para la protección y mejora de sus poblaciones durante el año 2001, y vedar la pesca de aquellas otras insuficientemente protegidas o representadas en el Territorio Histórico de Álava.

Teniendo en cuenta que tras producirse las transferencias por Decretos del Gobierno Vasco número 34/85 y la Diputación Foral de Álava número 884/85, ambos de 5 de marzo, corresponde a esta última el desarrollo normativo en esta materia.

En consecuencia, oído el Consejo Territorial de Pesca, reunido al efecto el 12 de diciembre de 2000, vistos los informes preceptivos, en su virtud, haciendo uso de las facultades que me competen,

DISPONGO:

Desarrollar la normativa que regulará el aprovechamiento de la pesca continental en el Territorio Histórico de Álava durante el año 2001.

ARTÍCULO 1º. ESPECIES PESCABLES:

Las especies pescables serán:

a.- Peces:

Trucha común (Salmo trutta m. fario)

Trucha arco-iris (Oncorhynchus mykiss)

Black-bass (Micropterus salmoides)

Anguila (Anguilla anguilla)

Barbo (Barbus graellsi)

Carpa (Cyprinus sp.)

Carpín (Carassius auratus)

Loina o Madrilla (Chondrostoma toxostoma)

Tenca (Tinca tinca)

Lucio (Esox lucius)

Ezkailu, Piscardo o Chipa (Phoxinus phoxinus)

Bermejuela (Rutilus arcasii)

b.- Crustáceos:

Cangrejo señal (Pacifastacus leniusculus)

Cangrejo rojo (Procambarus clarkii)

ARTICULO 2º. Períodos, días y horas hábiles:

2.1. Períodos hábiles:

El período hábil para la pesca de salmónidos en aguas continentales durante la presente temporada, tanto en aguas libres como de régimen especial, será con carácter general el comprendido entre el 18 de marzo y el 31 de julio, ambos inclusive, con las siguientes excepciones:

a) En los Embalses de Albina, Maroño, Ullíbarri-Gamboa, Urrúnaga y la orilla alavesa del Embalse de Sobrón, cuyo período hábil será del 18 de marzo hasta el 30 de septiembre, ambos inclusive.